# 2.2 GAIAREN LANKETA

## > Herriak dauka

### - Adjektiboen sailkapena

**Helburuak**

– Beraien herria deskribatzeko baliabideak eskuratzea.
– Hainbat adjektibo euskaraz izendatzen ikastea.
– Adjektibo bakoitzaren esanahia ulertzea eta noiz erabili behar den jakitea.

**Prozedura**

– Umeei herria deskribatzeko adjektiboak ikasiko dituztela azaldu.
– Pertsonak deskribatzeko ikasi zituzten adjektiboez galdetu eta arbelean, denen artean, zerrenda egin.
– Umeei adjektiboen txartelak erakutsi eta azaldu:
  - Pertsonak deskribatzeko eta herria deskribatzeko adjektiboak konparatuko dituztela.
  - Esanahi bera duten bi irudi daudela.
  - Beraien lana pertsonak deskribatzeko eta herriak deskribatzeko esanahi bera dauzkaten bikoteak aurkitzea dela.
– Talde handian adjektiboen sailkapena egin.
– Arbeleko zerrenda osatu.
– Hiztegi-koadernoko fitxetan adjektiboen irudiak bilatu eta idatzi.